

5. KANALAK

Kanal propioak honakoak dira: Salmenten Indarra, Internet bidezko Salmentak eta, izatekotan, baita gure denda propioak ere.

Kanal elkartuak: elkartutako dendak eta handizkariak, hain zuzen.

Banaketa-kanala: produktua ekoizlearengandik kontsumitzailearengana iristeko bidea egiteko erabiltzen den edozein bitartekori deritza. Bi kanal mota aurki ditzakegu:

Zuzeneko kanala: Ekoizlea zuzenean bezeroarengana iristen da. Bezeroari informazioa eta aholkuak ematea garrantzitsua denean erabiltzen da

Kanpo kanala: Produktua banatzen duten enpresak ekoizleak berak ez badira. Horrelakoetan, banaketa bera beste negozio bat da, plangintza, antolaketa eta kudeaketa espezifikoak dituena.

Bestalde kanal mota luzeeraren arabera ere sailka daiteke, kanal luzea eta kanal laburra.

Kanal luzea: Ekoizlea eta kontsumitzailearen tartean handizkariak daude, hauek, txikizkarira edota kontsumitzaileera pasatzen da, Hau gauzatzeko kanpo kanalak erabiltzen dira.

Kanal laburra: Kanal mota honetan, handizkaria kentzen da eta zuzenean kontaktua kontsumitzailearekin da.

Gure proiektuan, kanpo kanalik ez dugu erabiliko, beraz gu arduratuko gara gure zerbitzu eta produktu guztiak kontsumitzailearengana iristarazten. Ez dugu handizkaririk erabiliko eta hortaz, luzeeraren arabera kanal laburra erabiliko dugu. txakurren osteratxo egitera gu joango gara zuzenean eta internet salmentarik egiten ez dugunez, dendako salmentak zuzenean egingo ditugu. Honek, ekonomikoki abantaila emango digu, ez dugulako kanpo enpresarik kontratatatu beharko.